119 V.Kantz.A.E., Auzi Zibilak, Alonso Rodríguez, Amaituak C-1607-1, C-1608-1.; AYERBE IRIBAR, M. R. eta DÍEZ DE SALAZAR, L. M.: *op. cit.*, Eranskin dokumentala, 486 or.

por 58 personas de las cuales únicamente cuatro eran mujeres¹¹⁹. Por lo general, los patronímicos de los cabezas de familia asistentes a las asambleas se correspondían con el nombre de un solar. El apellido era indicador de procedencia y podía ser la prueba más fidedigna de la antigüedad de la familia. Así vemos en la documentación apellidos como Bazcardo, Izturizaga, Donachele, Garagorri, Berrozpe... todos ellos correspondientes al nombre de un solar. Entre la documentación producida por el concejo durante la Edad Media encontramos cartas de poder, contratos de vecindad, acuerdos con particulares y demandas. Llama la atención la ausencia de ordenanzas, la normativa que permitía la convivencia entre los vecinos. Esta normativa constituía una fuente de derecho local, un marco de referencia donde poder acudir en caso de discrepancia.

Pero la falta de esta normativa, no significa que no existiera. De hecho, a través de otro tipo de documento, en concreto un contrato firmado en 1434 entre el concejo y el señor de Leizaur, podemos afirmar que este tipo de normativas se llegaron a realizar: "más que guarde de la hordenança qu'está fecha por la dicha vezindad". Uno de los asuntos tratados en las asambleas vecinales fue el de la gestión de los bosques. Su explotación era de interés para todos los habitantes de la colación de Andoain. Por esta razón su uso debía estar bien regulado, especialmente el de aquellas zonas que fueran comunitarias. La madera era un recurso esencial para todos. Se utilizaba como elemento constructivo, como materia para utensilios, muebles y armas y como suministro de energía. Dependiendo de su utilidad, el árbol debía ser tratado de una determinada forma. Este tratamiento era la forma de obtener una mayor calidad de la madera. Era, por tanto, de vital importancia tener en cuenta aspectos como el momento en el que el árbol era talado —la época del año, la fase lunar—, el tipo de poda que se realizaba —cortar, podar— o la especie forestal —roble, fresno—.

El incumplimiento de su tratamiento generó multitud de conflictos entre los diferentes habitantes de la colación de Andoain, principalmente entre los ferrones y el resto de vecinos. Las tensiones generadas entre unos y otros por la explotación del bosque obligó al concejo de Andoain a firmar acuerdos. Así por ejemplo, en 1434 se firmó un convenio entre el concejo y Juan Pérez de Leizaur, señor de la ferrería de Leizaur. A través de él, se establecieron las zonas del monte "Huarana" que el señor de Leizaur podía utilizar para la obtención de carbón. Por otra parte, en el monte "Balzuzquibizcar" se le permitió cortar y talar aquellos árboles que no fueran robles. En 1459 la explotación del monte "Huarana" fue motivo de denuncia ante el tribunal de justicia del reino de Castilla, la Chancillería. Esta vez el concejo se enfrentó a Miguel Martínez de Engómez, preboste de San Sebastián y propietario de la ferrería de Urrillondo. Mientras Miguel Martínez de Engómez defendía que podía cortar y talar los árboles de "Huarana" y el monte "Chimilodi", el concejo aseguraba todo lo contrario. Miguel Martínez Engómez se amparaba en el "Fuero de Ferrerías" de Gipuzkoa para defender sus derechos, "según los privilegios y libertades y franquezas que el Rey nuestro señor y los otros Reyes de

119 A.R.Ch.V., Pleitos Civiles, Alonso Rodríguez, Fenecidos C-1607-1, C-1608-1. AYERBE IRIBAR, M. R.; DÍEZ DE SALAZAR, L. M.: *op. cit.*, Apéndice documental, p. 486.

hauek irakur daitezke: Bazcardo, Isturitzaga, Donechele, Garagorri, Berrospe, denak bat datozenak oinetxe baten izenarekin. Kontzejuan sorrarazitako agirien artean ahalduntze-eskutitzak, auzotasun-kontratuak, partikularrekiko hitzarmenak eta auzi-eskeak daude. Arreta ematen du, ordea, ordenantzarik, auzotarren arteko elkarbizitza arautzeko ez egoteak. Ordenantzak tokiko zuzenbideko iturria izan ohi ziren, eta ereduzko esparru bat kontuak erabakitzeke ika-mikak zeudenean gai baten inguruan.

Edonola ere, iturrietan ez aurkitzeak ez du esan nahi horrelako araurik ez zegoenik. Izan ere, beste agiri mota baten arabera, 1434koa, kontzejuaren eta Leizaurko jaunaren artekoa, esan dezakegu bazegoela horrelako araugintzarik, zeren baitio dokumentu horrek, besteak beste honako hau: *más que guarde de la hordenança qu'esta fecha por la dicha vezindad*. Bilera edo biltzarretan behin eta berriro azterturiko kontua basoen kudeaketa zen. Basoen ustiapena Andoaingo kolazioko biztanle guztientzat intereseko gaia zen; eta, horregatik, basoen erabilera ondo araututa egotea funtsezkoa zen, bereziki orokorrak ziren aldean erabilera. Garai horretan, egurra ezinbesteko gaia zen denentzat, eraikitzeke, tresnak eta altzariak egiteke, are armak sortzeko, eta, noski, erregai gisa ere bai, beraz energia-iturria ere bazen, zuhaitz mota bakoitzari bere erabilgarritasunaren arabera egiten zitzaion kontu. Era horretan, bermatu nahi zen zura kalitate handikoa zela; eta funtsezkoa zen zuhaitza botatzen zen unean hainbat gauza buruan edukitzea: —urtarora, ilargiaren aldia—, egingo zen lana —kimaketa edo ebakitzea— eta, noski, arbola-mota —haritza, lizarra—.

Basoen gaineko araugintza ez betetzeak liskar asko eragin zuen Andoaingo kolazioko biztanle mota desberdinen artean, batez ere, burdinolako gizonen eta gainerako auzotarren artean. Batzuen eta besteen arteko ika-mikek, basoaren ustiapenari buruzkoek, azkenean, kontzejua bera behartu zuten, hitzarmenak sinatzera. 1434. urtean, esate baterako, Leizaur burdinolako jaun Juan Perez Leizaurren eta kontzejuaren artean hitzarmena sinatu zen. Adostutakoaren arabera, Huarana mendiko zenbait zonalde Leizaur jaunak erabili ahal zituen, era horretan ikatza lortuz haren burdinolarako, baina, debekatu zen Ysaso mendia erabili ahal izatea helburu horrekin. *Balzuzquibizcar* mendian, aldiz, Leizaurkoak haritzak ez ziren guztiak ebaki eta bota zitzakeen. 1459. urtean, "Huarana" mendiaren ustiapena zela eta, salaketa egon zen Gaztelako erresumako bake-auziaren *Chancilleriaren* aurrean. Kasu horretan, kontzejuak Miguel Martinez Engomezen aurka Donostiako prebostua eta Urriolondoko burdinolako jabea, egin zuen. Miguel Martinez Engomezek aldeztu zuen bere eskubidea arbolak ebaki eta botatzeko "Huarana" eta "Chimilodi" mendietan, eta kontzejuak ukatzen zuen eskubide hori. Miguel Martinez Engomezek bere eskubideak defenditzeko Gipuzkoako "Burdinolen Foruan" hartzen zuen babes: *según los privilegios y libertades y franquezas que el Rey nuestro señor y otros Reyes de Castilla tienen dados e otorgados a las ferrerías de Guipúzcoa*. Foru hori arautegi bat zen olagizonak babesteko eta haien jarduera arautzeko, lanbide-talde garrantzitsutat jotzen baitzen, aberastasun-sortzaile. Gaztelako Alfontso XI.ak eman zuen 1338an, eta berarekin sustatu nahi zen burdinaren merkataritza, horretan jarduten zutenei hainbat pribilegio emanaz. Horien

Castilla tienen dados e otorgados a las ferrerías de Guipúzcoa". Este Fuero era una normativa que trataba de regular y proteger a los ferrones, un grupo socio-profesional que generaba riqueza. Fue otorgado por Alfonso XI de Castilla en 1338 y a través de él se adjudicaba una serie de privilegios que favorecía el comercio del hierro. Entre ellos estaba el de poder cortar cualquier tipo de árbol y de la manera que cada uno quisiera. Por su parte, los vecinos de la tierra de Andoain negaban que el preboste tuviera el derecho a explotar los montes de "Huarana" y "Chimilodi" puesto que eran propiedad del concejo y por lo tanto estaban destinados al aprovisionamiento de la aldea¹²⁰.

Además de enfrentarse por estos montes, el concejo y Miguel Martínez de Engómez lo hicieron también por la explotación de varios seles comunales. Este tipo de conflictos entre quienes explotaban el monte para hacer carbón y los que lo utilizaban para hacer pastar a sus ganados, fueron muy frecuentes. Unos y otros tenían intereses encontrados. El ganado, por su parte, necesitaba de espacios con herbaje y para obtenerlo, los dueños prendían fuego a los montes. En cambio, los que se dedicaban a explotar los bosques precisaban de masa maderera y para ello cuidaban en gran medida el crecimiento y tala de los árboles. Y los incendios eran un gran enemigo para el crecimiento de los árboles. Finalmente, en el mes de septiembre de 1459, el tribunal de justicia de la corona falló la sentencia. Estableció los seles propiedad del concejo y dictaminó cuáles podían ser explotados por los vecinos. Asimismo, dispuso cuáles podían ser utilizados por el preboste de San Sebastián.

Además de la gestión del bosque, el concejo de Andoain debía preocuparse por el mantenimiento de los caminos que pertenecían a su jurisdicción. Las vías de comunicación eran la arteria que unía un lugar con otro, pero eran además la red por la que se producían los intercambios y el abastecimiento tan necesarios para la subsistencia de la comunidad. Era responsabilidad del concejo posibilitar y asegurar la accesibilidad y por ello la reparación y limpieza eran funciones de primer orden. No solo los caminos requerían de mantenimiento, también los puentes. Estos solían sufrir importantes desperfectos porque en su mayoría estaban levantados en madera. En ocasiones la reparación de un puente incumbía a varios concejos a la vez, lo que provocaba desacuerdos entre las distintas vecindades. Este es el caso del puente de Azelain. La mitad de este pertenecía a Andoain, mientras que la otra a Asteasu, Larraul, Alkiza y Zizurkil. Cada localidad debía contribuir con la parte del gasto de reparación que le correspondía. Pero en 1492, tras haber llevado a cabo unas obras en el puente, la tierra de Andoain trató de que las aldeas de Asteasu, Larraul, Alkiza y Zizurkil pagaran más de lo que les correspondía. Por esta razón interpusieron una denuncia ante los Reyes Católicos y el concejo de Andoain tuvo que personarse para dar sus explicaciones¹²¹.

El concejo de Andoain velaba también por mejorar el estatus de sus vecinos así como por la seguridad y protección de los mismos. Para ello buscó toda una serie

120 A.R.Ch.V., Pleitos Civiles, Pérez Alonso, Carpeta n.º 864, Exp. 3, s.f.

121 A.G.S., VIII-1492, fol. 29.

artean edozein zuhaitz ebakitzekoa zegoen —nahi zen moduan—. Andoaingo lurreko auzotarrek ukatzen zuten prebostearen eskubide hori “Huarana” eta “Chimilodi” mendietan, kontzejuarenak baitziren biak ala biak, eta, horrenbestez, herria hornitzeko gordeta zeuden¹²⁰.

Bi mendi horiengatik ez ezik, komunitateko zenbait sarobe zirela eta, liskarrak egon ziren komunitatearen eta Engomez jaunaren artean. Askotan gertatu ziren mendian ikatza egin nahi zutenen eta mendia aziendarentzako bazka-lekua zela defenditzen zutenen artean. Bi interes talde desberdin ziren: aziendak behar zituen larreak belardiz osatuak, eta hori lortzeko, jabeek su ematen zioten mendiari. Aldiz, basoa behar zutenek arbolak zaindu behar zituzten —basozaintzak zuhaitzak haztea eta ebakitzeko orduan kontrola eskatzen zituen—. Suteak ziren, bereziki, etsai natural handiena. Azkenik, 1459. urteko irailean, Koroako justizia-epaitegiak erabaki zuen, eta adierazi zuen sarobeak kontzejuarenak zirela, eta ezarri zuen haie-tako zeintzuk ustiatu ahal zituzten auzotarrek. Era berean, erabaki zuen zeintzuk erabil zitzakeen Donostiako prebosteak.

Basoa kudeatzeaz gain, Andoaingo kontzejuak bere eskumeneko bideak irau-narazteaz arduratu behar zuen. Garraibideak ziren tokiak lotzeko arteriak, baita elkartrukeak eta horniketak ere bermatzeko, beharrezkoak zirenak erkidegoak bizi-rik irauteko. Kontzejuak segurtatu eta ahalbidetu behar zuen irisgarritasuna, eta horregatik derrigorrezko garbiketa eta konponketa lanak eginarazi behar zituen, lehenetsun handiz. Bideak ez ezik, zubiek ere konponketak behar zituzten, zurez-koak zirenez erraz hondatzen baitziren. Batzuetan, zubi bat konpontzea kontze-juen arteko elkarlana zen, eta herrien arteko desadostasunetarako zioa. Horixe gertatu zen Azelaingo zubiarekin: eraikinaren erdia Andoainena zen eta beste erdia Asteasu, Larraul, Alkiza eta Zizurkilen jabetza. Herri bakoitzak jarri behar zuen parte bat konponketa-lanak ordaintzeko; baina, 1492an, lan batzuk egin ondoren Andoainek nahi izan zuen besteek zegokiena baino gehiago ordaintzea. Asteasuk, Larraulek, Alkizak eta Zizurkilek salaketa jarri zuten Errege Katolikoen aurrean, eta Andoainek bertaratu behar izan zuen azalpenak emateko¹²¹.

Andoaingo kontzejuak herritarren maila eta haien segurtasuna eta babesa zaintzen zituen. Horretarako, moduak bilatu zituen lur eta gerrako jaunen hertsas-pena eta kontrola ekiditearren. Formula horietako bat *cartas de vecindad* ziren, zein-ek ahalbidetzen zioten herriari hirien esparruko eskubide berezkoagoez gozatzea. Ikusten denez, XV. mendean zehar, Andoaingo lurraldeko kontzejuak gero eta garrantzi handiagoa hartu zuen erabaki-organo gisa. Gertatzen ari ziren aldaketa politiko eta sozialek toki-korporazioaren alde jokatu zuten, eta indarra hartu zuten, eta ahotsa, elizaren eta jaunen botere tradizionalak aurkatzeko orduan.

120 V.Kantz.A.E., Auzi Zibilak, Pérez Alonso, karpeta 864 zk., Esp. 3, datarik gabe.

121 S.A.N., VIII-1492, 29 orrialdea.

de mecanismos encaminados principalmente a evitar el control y presión que los señores de la tierra y de la guerra ejercían sobre la colación. Entre estas fórmulas se encontraban las denominadas *cartas de vecindad* que permitieron que Andoain gozara de una serie de derechos que el mundo urbano le ofrecía. A medida que avanzaba el siglo XV, el concejo de la tierra de Andoain fue logrando un mayor peso como órgano de decisión. Los cambios políticos y sociales que se estaban produciendo posibilitaron que la corporación local tuviera fuerza y alzara su voz frente a los poderes tradicionales de la Iglesia y de los señores.

4.4. Las luchas por el control del espacio

Durante toda la Baja Edad Media los señores de la tierra y de la guerra intentaron mantener su hegemonía sobre el territorio guipuzcoano. Pero las circunstancias económicas, sociales y políticas que se estaban produciendo, hacían difícil su preeminencia. Desde principios del siglo XIII hasta finales del XIV, el territorio de Gipuzkoa se fue jalonando de villas que, a través de una carta puebla —documento fundacional—, obtenían una nueva realidad jurídica y demográfica, las denominadas *villas*. Todos los vecinos de la villa debían acatar la carta puebla así como las ordenanzas que cada urbe establecía. De esta forma, frente a la justicia particular ejercida por los Parientes Mayores se fue imponiendo el derecho local, el cumplimiento de las ordenanzas y la obediencia a la ley. La aparición de las villas supuso el surgimiento de una nueva realidad socioeconómica que se contraponía a los intereses de los linajes rurales. Los pobladores de las villas, a través de sus respectivas cartas puebla, gozaban de una amplia libertad de comercio además de una serie de derechos individuales. La situación de privilegio que tenían sus habitantes quiso ser aprovechada también por las aldeas. Estas se vieron inmersas durante los siglos XIV y XV en una creciente presión señorial. Los linajes, tratando de mantener la hegemonía sobre el territorio, presionaron a la habitantes rurales con nuevas cargas y tributos. La colación de Andoain tratando de evitar esta presión firmó una carta de vecindad con la villa de San Sebastián. La tierra de Andoain era, por su proximidad a la frontera con Navarra y por su integración en la ruta comercial que desde Vitoria llegaba hasta el puerto de San Sebastián, un posible lugar de bandidaje y violencia¹²².

Los linajes rurales aprovechaban este tipo de violencia para engrosar sus arcas y generar una situación de miedo. El robo de ganado, el asalto a arrieros y prisiones con rescate era una práctica habitual en la frontera entre Gipuzkoa y Navarra. Tanto las villas como las aldeas colindantes a la frontera debían garantizar la seguridad en las rutas comerciales lo que hacía imprescindible paliar el bandidaje y la presión señorial. La carta de vecindad se realizó en 1379 y fue ratificada por Enrique II el 28 de febrero de ese año. Además de Andoain, se unían a San Sebastián las localidades de Zubieta, Ibaeta e Igueldo. Es en la propia carta donde se especifica

122 TENA GARCÍA, S.: *La Sociedad urbana en la Guipúzcoa costera medieval: Donostia / San Sebastián, Rentería y Fuenterrabía (1200-1500)*, Fundación social y cultural Kutxa, Donostia / San Sebastián, 1997, p. 169.

4.4. Espazioa kontrolatzeko borrokak

Behe Erdi Aro guztian zehar, lur eta gerrako jaunak Gipuzkoako lurraldearen gaineko beren hegemoniari eusten saiatu ziren. Baina garaiko egoera ekonomiko, sozial eta politikoak zailtzen zuen lehentasun hori luzez mantentzea. XIII. mende hasieratik XIV. mende bukaera bitartean, Gipuzkoako lurraldea herriz betetzen joan zen, hiribildu-gutun bidez eratuak. Era horretan, jendeztatzeek lortzen zuten errealitate juridiko berri bat, eta populazio-modu berri bat ere: hiribilduak direlakoak. Hiribilduko biztanleek hiri-gutuna bete behar zuten, eta hiribilduak ezartzen zituen ordenantzak gobernatzeko. Halaxe, Ahaide Nagusien justizia partikularren aurrean, tokiko zuzenbidea ezartzen hasi zen, ordenantzak bete beharra baitzegoen eta araugintza mota berri horri men egitea derrigorrezkoa zen. Beraz, hiribilduak agertu izanak ekarri zuen ondorio errealitate sozioekonomiko berri bat, landa-leinuen interesen kontrakoa. Hiribilduko biztanleek, hiri-gutunen bidez, askatasun handiaz gozatzen zuten merkataritzarako, baita gizabanakoen eskubide zenbaitez ere, biztanleek zuten pribilegiozko egoera herriek berek ere eskuratu nahi izan zuten. Izan ere, XIV eta XV. mendeetan jauntxoek presioa handiagotuz joan zen herrien gainean. Leinuak, kosta ahala kosta, saiatu ziren lurraldearen gaineko gailentasunari eusten, eta nekazariei beste karga eta tributu batzuk ezarri nahi izaten zizkieten. Andoaingo kolazioak leinuen presioari aurre egin nahian, auzotasun-karta sinatu zuen Donostiako hiribilduarekin. Andoaingo lurrak, Nafarroako mugarekiko hurbiltasuna eta Gasteiztik Donostiako porturaino iristen zen merkataritza-ibilbidean zegoela eta, indarkeria eta bide-lapurretarako toki aproposak ziren.

Landa-leinuen horrelako bortxa aprobeztatu ohi zuten beren kutzak bete eta beldur giroa sortzeko. Ganaduen lapurreta, mandazainen kontrako indarkeria, bahiketa erreskateak eskatzeko... horiek guztiak ziren Gipuzkoa eta Nafarroa inguruko mugetan praktikak. Bai hiribilduek bai mugaldeko herriek merkataritza-ibilbideen segurtasun zaindu eta ahaleginak eta bi egin behar zituzten libratzeko leinuen presiotik zein bidelapurrengandik¹²². Auzotasun-karta 1379an egin, eta Enrike II.ak berretsi zuen urte bereko otsailaren 28an. Andoainez gain, Donostiari batzen zitzaizkion Zubieta, Ibaeta eta Igeldo. Kartan bertan esplikatzen zen hitzarmena egiten zela hiribildua eta auzuneak "hobeto jendezta litezen". Auzotasun-hitzarmenak bat zekarren Andoain hiribilduaren babespean jartzea eta hiriko biztanleen eskubide eta pribilegio berberak eskuratzen zituztela andoaindarrek, ondorioz. Baina, horren truke udalburuaren erabakiak bete egin beharko zituen Andoainek, eta hiribilduan bete beharreko guda-zerbitzuak ere egin beharko zituen aurrerantzean. Herri sinatzaileetako bakoitzak bere kontzejuari eusten zion, baina Donostiak hartutako erabakiak bete beharrekoak ziren. Hiribilduaren eta herrien arteko hitzarmenarekin bermatu nahi zen landa-leinuen ez zutela ezarriko beren justizia propioa¹²³.

122 TENA GARCÍA, S.: *La Sociedad urbana en la Guipúzcoa costera medieval: San Sebastián, Rentería y Fuenterrabía (1200-1500)*, Kutxa Fundazioa, Donostia, 1997, 169 or.

123 LEMA PUEYO, J. A.: "«Por los procuradores de los escuderos hijosdalgo»: de la Hermandad General a la formación de las Juntas de la Provincia de Guipúzcoa (Siglos XIV-XVI).", in LEMA PUEYO, J. A. et al: *El triunfo de las élites urbanas guipuzcoanas: nuevos textos para el estudio del gobierno de las villas y de la Provincia (1412-1539)*. Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia, 2002, 113 or.

que el acuerdo se realizaba para que la villa y sus vecindades fueran “mejor pobladas”. El acuerdo de vecindad implicaba que Andoain quedaba bajo la protección de la villa y obtenía así los mismos privilegios y derechos que los habitantes de la urbe. Pero en contrapartida, quedaba sometida a las decisiones del alcalde ordinario y a participar de forma conjunta en los servicios militares de la villa. Cada aldea firmante seguía manteniendo su concejo pero este quedaba supeditado a las decisiones de San Sebastián. El convenio entre la villa y las aldeas era garantía para evitar que los linajes rurales ejercieran sobre la población su propia justicia. A partir del momento de la firma, todo conflicto debía solucionarse por vía judicial y no, como hasta entonces, por la justicia particular de los señores¹²³.

Pero además de frenar la presión señorial, el acuerdo permitía que San Sebastián extendiera su jurisdicción sobre el mundo rural para obtener así mayores beneficios y garantizar un mayor dominio del territorio comarcal. Lo que en definitiva significa que Andoain escapaba de la presión señorial para caer en una nueva, la de la villa. Según se desprende del documento, la unión se realizó de forma voluntaria por parte de Andoain, Zubieta, Ibaeta e Igueldo, “de su propia voluntad”. Aunque se especificaba que en caso de que las vecindades quisieran salir de la unión, estas deberían pagar una multa, “e otorgaron de no salir de la vecindad so ciertas penas”. Desde finales del siglo XIV la gran mayoría de las aldeas de Gipuzkoa se fueron incorporando a la jurisdicción territorial de alguna de las 25 villas existentes. El resultado final fue una subordinación del mundo rural a las directrices políticas y económicas emanadas desde las villas. Pero además de las cartas de vecindad, existía otro mecanismo que Andoain utilizó para lograr escapar de la presión señorial y obtener seguridad: la Hermandad. Desde finales del siglo XIII las distintas entidades urbanas guipuzcoanas tendieron a asociarse entre sí con una finalidad comercial o bien para defenderse de la violencia de los linajes rurales. Con esta última finalidad se creó en 1375 la Hermandad de la tierra de Guipúzcoa. Esta institución nacía con la intención de ser garante de una sociedad justa y sin violencia. En ella se aliaron una serie de villas que necesitaban la seguridad en las vías de comunicación, imprescindible para el desarrollo comercial del que dependían. La Hermandad tenía potestad policial y judicial para actuar en cualquier parte de Gipuzkoa¹²⁴.

La institución fue tomando cada vez una mayor relevancia hasta que en 1397 representantes de todas las poblaciones guipuzcoanas se reunieron en Getaria conformando la Hermandad General de Guipúzcoa. La colación de Andoain estuvo representada en esta importante reunión a través de su procurador Juan Miguel de Idiazabal. Este encuentro fue de gran relevancia para la futura formación de la provincia de Gipuzkoa. Por primera vez todas las localidades quedaban agrupadas. En Getaria se firmó el primer cuaderno de ordenanzas de la Hermandad. El territorio de

123 LEMA PUEYO, J. A.: “«Por los procuradores de los escuderos hijosdalgo»: de la Hermandad General a la formación de las Juntas de la Provincia de Guipúzcoa (Siglos XIV-XVI).”, en LEMA PUEYO, J. A. et al: *El triunfo de las elites urbanas guipuzcoanas: nuevos textos para el estudio del gobierno de las villas y de la Provincia (1412-1539)*. Diputación Foral de Gipuzkoa. Donostia / San Sebastián, 2002, p. 113.

124 *IBÍDEM*, p. 64.

Sinaduratik bertatik liskarrak judizialki konpondu behar ziren, eta ez ordura arte bezala, jaunen arteko justizia partikularraren bidez.

Baina, ahaide nagusien presioari galga jartzeaz gain, hitzarmenek Donostiari ahalbidetzen zion bere eskumena hedatzea landa-lurrean, zeinak ematen baitzizkion onura gehiago eta eskualdean ahalmen gehiago. Hortaz, Andoainek ihes egiten zion leinuen botereari beste mendetasun mota batean erortzeko, hots, hiribilduarenean. Agirian irakur daitekeenez, bat-egitea borondatezkoa izan zen Andoain, Zubieta, Ibaeta eta Igeldorentzat —*de su propia voluntad*—. Halere, ezarrita gelditzen zen auzoek batasunetik atera nahi izatera, isun bat ordaindu behar zutela: *e otorgaron de no salir de la vecindad so ciertas penas*. XIV. mendearen bukaeratik Gipuzkoako herrixka gehienak une horretan herrialdean zeuden 25 hiribilduetako baten jurisdikziora batu ziren. Prozesuaren azken emaitza zera izan zen: landa-eremuaren mendekotasuna hiribilduek ezarritako zuzentarau ekonomiko eta politikokoekiko. Auzotasun-agiriaz gain, bazegoen beste bitarteko bat leinuen presioetik alde egiteko eta segurtasuna izateko, eta Andoainek baliatu zuen: Anaiarte. XIII. mende bukaeratik Gipuzkoako jendeerkidegoek joera izan zuten elkartzeko merkataritza-helburuz eta landa-leinuen bortzaren aurrean defenditzeko ere. Azken xede horrekin osatu zen 1375. urtean Gipuzkoako lurraldeko Anaiarte. Erakundea gizarte justu eta bortxa gabe bat lortzeko asmoz sortu zen. Eta haren inguruan elkar hartu zuen zenbait hiribilduk, hain zuzen ere, behar zutenek garraibideetako segurtasuna bermatzea, derrigorrezkoa zena guztiz beharrezkoa zuten merkataritza-garapena indartzeko. Anaiarteak botere poliziala eta judiziala zuen Gipuzkoako edozein tokitan.

Erakundeak gero eta eskumen gehiago eskuratu zituen, harik eta, azkenik, 1397. urtean Getarian batzartu ziren arte herrialdeko herri guztiak Gipuzkoa Anaiarte Nagusia sortzeko¹²⁴. Andoaingo kolazioak ordezkari bat bidali zuen Anaiartearen batzarrera: Juan Miguel Idiazabal. Batzarra funtsezkoa izan zen Gipuzkoako probintzia gerora osatzeko. Lehenengo aldiz herri guztiak baturik zeuden erakunde batean. Anaiartearen ordenantzetako lehenengo koadernoan Getarian sinatu zen. Gipuzkoako lurraldea zazpi barrutitan banatu zen. Alkate bana zuten, zeina baitzen justiziaren arduraduna haren jurisdikziopeko landa-lurretan. Alkate hori bakarrik aukeratu ahal zuten zenbait hiribilduk barruti bakoitzean, eta haren eskumenen artean honako hauek zeuden: gaizkileak zigortzea, jenderik gabeko eremuetan eta bideetan lapurreta eta ebasketa saihestea, beste baten borondatearen kontra, gizon zein emakumea, inork gauza bat ez eskuratzea, merkantziak kentzea, eta suteak eta txikizioak etxeetan, mendietan eta burdinoletan eragiten zituen zigortzea. Ordenantzen bidez Anaiartearen barne funtzionamendua ere arautu zen. Erakundea bera finantzatzeko kuota bat ezarri zen, herri bakoitzak ordaindu beharrezkoa. Kopurua herriko biztanle eta ondasun kopuruaren arabera zen. Aldi berean, ondasun-maila zen herriaren erabaki-ahalmena zedarritzen zuena. Gauzak horrela, hiribilduek bakarrik zuten bozkatzeko eskubi-

124 *IBÍDEM*, 64 or.

Gipuzkoa quedó dividido en siete distritos. Cada uno de ellos contaba con un alcalde encargado de aplicar la justicia en las zonas rurales que quedaban bajo su jurisdicción. Este alcalde solo podía ser elegido por determinadas villas dentro de cada distrito y entre sus competencias estaban la de controlar el hurto y robo en los caminos o en los despoblados, impedir que se obtuviera por la fuerza algún objeto en contra de la voluntad de otros, sancionar al causante de un incendio o destrozo en una casa, tierra, monte o herrería. A través de estas ordenanzas se regulaba también el funcionamiento interno de la Hermandad. Se estableció la normativa que hacía referencia a la financiación de la institución obligando a cada localidad integrante a pagar una cuota. Esta dependía del número de vecinos y de bienes que tuviera la población. Al mismo tiempo, el número de propiedades determinaba el poder decisorio de la localidad. De este modo, únicamente las villas eran las que tenían derecho a voto, quedando las vecindades, como la de Andoain, en un segundo plano.

Por otra parte, en el número de propiedades se tenía en cuenta no solo los bienes de cada villa sino también los bienes de cada vecindad anexionada a ella. Por ello, las villas que ocupaban una amplia extensión, porque tenían bajo su jurisdicción varias aldeas, como la de San Sebastián, obtenían un mayor peso en la toma de decisiones. Se marcaba así una diferencia entre las denominadas villas mayores, aquellas que tenían bajo su jurisdicción un amplio territorio, de las villas menores, las que tenían bajo su control un territorio menor. Pero unos años más tarde, los intereses que la colación de Andoain tuvo para avecindarse a una villa, cambiaron. La situación en el territorio de Gipuzkoa se había modificado. La Hermandad con ayuda de la corona había logrado frenar el poder de los Parientes Mayores. En 1457 muchos de ellos fueron desterrados de Gipuzkoa y sus casas torre destruidas o desprovistas de sus elementos defensivos. Así ocurrió con la casa torre de Leizaur. Toda su parte defensiva fue desmochada y se prohibió que se levantara de nuevo con su aspecto militar.

La pacificación del territorio generó una nueva situación entre algunas villas y las zonas rurales. Y los intereses de avecindamiento experimentaron un giro. Las aldeas en su deseo por la prosperidad económica buscaron nuevas uniones con aquellas villas que mantenían el comercio con el reino de Navarra y con el interior de Castilla¹²⁵. Así en 1475 Andoain firmó carta de vecindad con la poderosa villa de Tolosa. El cambio de avecindamiento generó conflictos entre las dos villas mayores: San Sebastián que denunciaba que desde tiempo inmemorial Andoain estaba bajo su jurisdicción y Tolosa, que veía en la nueva vecindad una forma de ampliar su poder económico sobre el territorio. El último lunes del mes de enero de 1475 cincuenta y ocho personas en representación del concejo de Andoain se reunieron, como era costumbre, en la iglesia de San Martín. Un total de cincuenta y cuatro hombres y cuatro mujeres firmaron un documento por el que daban poder a otras catorce personas para que estas trataran la anexión a la villa de Tolosa y la exención de la de San Sebastián. Entre los testigos que refutaron el acuerdo se encontraba el

125 TENA GARCÍA, S.: *op. cit.*, p. 170.

dea, Andoain moduko auzo-herriak bigarren plano batean gelditzen zirelarik. Beste alde batetik, ondasunen kopurua kalkulatzeko orduan, ez zen bakarrik kontuan hartzen hiribilduarenak berarenak, baizik eta anexionaturik zituen auzoenak ere. Horregatik, hedadura handiko hiribilduek, zenbait herri bere jurisdikzio pean zituztelako —esate baterako Donostia— pisu handiagoa zuten erabakiak hartzeko unetan. Ondorioz, hiribildu nagusiak zeuden, haren mende lurralde zabala zutenak, eta hiribildu txikiak, haren mende lurralde murriztagoa zutenak.

Urte batzuen buruan, lehenago hiribildu batekin elkartzeko izan zituen interesak aldatu ziren Andoaingo kolazioarentzat. Gipuzkoako lurraldearen egoera desberdina zen. Anaiarteak, Gaztelako koroaren laguntzarekin, Ahaide Nagusien botereari galga jarri zion. 1475. urtean haietako asko deserriratura zeuden eta dorretxeak suntsituta edo defentsako osagai arkitektonikoak moztuta. Leizaurko dorretxearekin horixe gertatu zen; babes-osagai guztiak moztu zituzten, eta debekaturik gelditu zen haren osagai militarrek berreskuratzea.

Lurraldea baketzeak egoera berri bat marraztu zuen hiribildu batzuen eta nekazaritzako lurren arteko harremanetan. Eta auzotzeko interesek birarazi zuten beste norabide batean. Herriek, aberastasun ekonomikoaren atzetik, lotura berriak bilatu zituzten Nafarroako erresumarekin eta Gaztela barruko zonaldeekin merkataritza-harremanak mantentzen zituzten hiribilduekin¹²⁵. Helburu horrekin 1475. urtean auzotasun-karta sinatu zuen Andoainek Tolosako hiribildu boteretsuarekin. Andoaingo auzotasun-aldaketa liskarrak eragin zituen bi hiribildu nagusien artean: Donostiak argudiatzen zuen Andoain antzinatik zegoela bere jurisdikziopean. Tolosak, aldiz, Andoainek berarekin eramanez ikusten zuen bere boterea handiagotzen zela. 1475eko urtarrileko azken astelehenarekin, Andoaingo kontzejua ordezkatzuz berrogeita hemezortzi lagun batzartu ziren San Martin elizan, ohitura zen legez. Berrogeita hamalau gizonek eta lau emakumek sinatu zuten dokumentu bat, zeinaren bidez ahalordetzen zituzten hamalau pertsona negoziatzeko Tolosako hiribilduarekiko anexioa eta Donostiko banaketa. Akordioaren aurka egin zutenen artean honako hauek zeuden: parrokiako abadea, Juan de Larrañaga, leinu-buru batzuk, horien artean, Ramus Azelain, Martin Ruiz de San Millan, Martin Sanchez Azelain eta Juan Perez Elduayen, Leizaurko jauna¹²⁶. Pertsona horiek bertan egoiteak jakitera ematen du landa-eremuko jaunek oraindik garrantzia zutela beren jatorriko erkidegoetan. Landa-lurreko leinuek modua aurkitu zuten, nola edo hala, boterean mantentzeko. Hiri-leinuekin ezarritako itunei esker, lehendik zuten kontrola eta eragina mantendu zuten —zuzenki ala zeharka— tokiko politikagintzan, eta botere-zentroak monopolizatzea lortu zuten hurrengo mendean ere¹²⁷.

Urte bereko, otsailaren 7an, apenas astebete geroago beraz, auzotasun-agiria sinatu zen; oraingoan Tolosako Santa Maria elizan. Bertara deitu zituzten alkateak,

125 TENA GARCÍA, S.: *op. cit.*, 170 or.

126 A.M.T., C/5/1/8.

127 ARAGÓN RUANO, A.: "Linajes urbanos y Parientes Mayores en Guipúzcoa a finales de la Edad Media (1450-1520)", *La España medieval*, 35, 2012, 251 or.

que entonces era abad de la iglesia parroquial, Juan de Larrañaga y varias personas pertenecientes a los linajes rurales como eran Ramus de Acelain, Martín Ruiz de San Millán, Martín Sánchez de Acelain o Juan Pérez de Elduayen, señor de Leizaur¹²⁶. La presencia de estas personas pone de manifiesto la relevancia que los señores rurales van a seguir teniendo en las comunidades donde residen. Muchos de estos linajes rurales se las ingeniaron para mantenerse en el poder. Sus alianzas con los nuevos linajes urbanos les permitieron seguir controlando la vida política local y de la provincia de una forma directa o indirecta. Linajes que llegarán a monopolizar en la siguiente centuria los nuevos centros de poder¹²⁷.

El 7 de febrero de ese mismo año se firmó la carta de vecindad. Esta vez el documento se formalizó en la iglesia de Santa María de Tolosa. Allí fueron convocados los alcaldes, "oficiales y hombres buenos de la villa", los procuradores nombrados por el concejo de Andoain y cuatro vecinos de la tierra de Andoain que estaban considerados como personas *singulares*. A través del contrato de vecindad se establecieron los derechos que la tierra de Andoain pasaba a obtener, así como las obligaciones que debía cumplir. Entre los deberes estaba el de ser juzgado tanto en lo civil como en lo criminal por los alcaldes de Tolosa; pagar una cuota por estar representado en las Juntas de la Hermandad y; pagar a los escribanos por la realización de los documentos. Entre los derechos estaba el de ser defendido y amparado por la villa ante cualquier violencia o fuerza que cualquier concejo o vecino hiciera contra la universidad. Pero con el tiempo este acuerdo entre Tolosa y Andoain dejó de ser una ventaja para la colación, convirtiéndose en un yugo que impedía su desarrollo local. Las diferencias se iniciaron ya a finales del siglo XV. Pero no será hasta la siguiente centuria cuando la tierra de Andoain pleiteará para escapar de la influencia y presión de la villa y tener así un poder autónomo sobre su territorio¹²⁸.

Finalmente, para concluir y sintetizar este capítulo, podemos afirmar que fijar cronológicamente el origen medieval de la aldea de Andoain, no es una tarea fácil. La ausencia de fuentes escritas y materiales anteriores al siglo XIV dificulta este trabajo. Pero la presencia del topónimo Andoain, asociado a una parroquia, en un documento de 1350 nos induce a creer que la aldea era ya un enclave organizado y jerarquizado con anterioridad a esta fecha.

Sea como fuere, es a partir del siglo XIV cuando los espacios habitados de Zumea, Leizaur y Andoain se irán configurando bajo unas normas organizativas y un funcionamiento en común. Poco a poco, la aglomeración de Andoain, donde se había erigido la parroquia, adquirirá un mayor peso frente a las comunidades de Zumea y Leizaur. Y será en el siglo XV, bajo la forma de concejo, cuando estas tres comunidades irán ganando terreno a la justicia particular que en tiempos precedentes habían ejercido los señores de la tierra y de la guerra.

126 T.U.A., C/5/1/8.

127 ARAGÓN RUANO, A.: "Linajes urbanos y Parientes Mayores en Guipúzcoa a finales de la Edad Media (1450-1520)", *La España medieval*, 35, 2012, p. 251.

128 TRUCHUELO GARCÍA, S. *Gipuzkoa y el poder real en la Alta Edad Moderna*, Diputación Foral de Gipuzkoa, Donostia / San Sebastián, 2004, p. 66.

oficiales y hombres buenos de la villa, Andoaingo kontzejuak izendaturik prokuradoreak eta Andoaingo lurraldeko lau auzotar pertsona *berezien* izendapenaren merezitzaileak. Auzotasun-hitzarmenaren bidez, Andoaingo lurraldeak eskuratzeko zituen eskubideak ezarri ziren, baita betebeharrak ere, noski. Azken horien artean zegoen Tolosako alkateen aldeko eskumen-ematea, bai gai zibiletan zein zigor jurisdikzioan; kuota bat ordaindu beharra Anaiarteko biltzarretan ordezkaturik egoteagatik eta idazlariei ordaintzea izkribuak egiteagatik. Eskubideen artean, hiribilduak unibertsitatea babestu eta defenditzearena edozein indarkeria edo bortxaren aurrean, etorri hura pertsona baten aldetik edo kontzeju batetik. Denbora igaro ahala, Tolosaren eta Andoainen arteko akordioa ez zen abantailatsua gertatu kolazioarentzat, tokiko garapena galarazten zuen uztarri bihurtu baitzen. Desadostasunak dagoeneko XV. mendearen bukaeran azaleratu ziren; halere, Andoaingo udalak itxoin egin zuen hurrengo mendera arte hiribilduaren presiope-
tik alde egiteko auzia jartzeko eta bilakatzeko botere burujabe bere lurralde pro-
pioaren gainean¹²⁸.

Azkenik, atal hau bukatzeko, laburbilduz, esan dezakegu Andoaingo Erdi Aroko herrixkaren sorrera kronologikoki zehaztea ez dela batere erraza. XIV. mendeko baino lehenagoko iturri dokumental eta materialen faltak lan hau zailtzen du. Baina Andoain toponimoaren presentziak 1350ko dokumentu batean, parrokia bati lotuta, eramaten gaitu pentsatzera data hori baino lehen antolatutako eta hierarkizatutako gune bat egon bazela.

Edonola, XIV. mendetik aurrera Zumea, Leizaur eta Andoaingo gune jendeztatuak antolakuntza-arau eta elkarrekiko kudeaketa batzuen inguruan eraenduko dira. Pixkanaka, parrokia zegoen tokian, Andoaingo jende-guneak Zumeako eta Leizaurko guneen aurrean pisu handiagoa hartuko du. Eta XV. mendean, kontzejuaren erabidepean, hiru erkidego horiek lur eta gerrako gizonek ezarritako justizia partikularraren gainetik kokatuko dira.

128 TRUCHUELO GARCÍA, S. *Gipuzkoa y el poder real en la Alta Edad Moderna*, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia, 2004, 66 or.